

1. Hezkuntza eta gizartea. Begirada soziologikoaren garrantzia hezkuntza ongi ulertu ahal izateko

Hezkuntza-arloko profesionalek (pedagogo, gizarte-hezitzaile, irakasle, etab.) ulertu behar duten gauzetako bat da hezkuntza fenomeno soziala dela. Hori da Hezkuntzaren Soziologia irakasgaiaren lantzen dugun lehenengo ideia, eta asignatura honetako garrantzitsuenetako bat. Adibidez, XX. mendearen hasieran, eskola eta hezkuntza ona Euskal Herrian zen kalkulu matematikoa (batuketa eta kenketak) eta doktrina katolikoa dominatzea (Azkarraga, 2010: 11). Nabaria den moduan, ehun urte geroago, curriculum hori erabat zaharkituta eta baliogabe geratu da, epe horretan euskal jendartea aldatu egin delako. Adibide honek balio digu beraz «hezkuntza-gizartea» harremanari buruz hausnartzen hasteko, hezkuntza-arloko profesionalek harreman hori zientifikoki aztertzen jakin behar dutelarik.

Hezkuntza «leku» ezberdinetatik begiratu eta azter daiteke. Guk asignatura honetan soziologiatik begiraturako diogu; izan ere, gure ustez begirada soziologikoa oso baliagarria izan daiteke hezkuntza ulertu nahi dutenentzat. Hezkuntzaren oinarrian pedagogia, didaktika eta psikologia bezalako diziplina eta zientziak jarri ohi izan dira, baina horiekin batera soziologiak ere bere lekua izan beharko luke, azken batean hezkuntza gertaera edo fenomeno sozial bat baita, eta ondorioz harreman estua baitu bere gizartearekin. Hezkuntzaren eduki, metodo eta helburuak sozialki baldintzatuak daude, gizartearen eta garaiaren arabera aldatzen baitira. Gizarteak eragin handia dauka hezkuntzan (eta alderantziz ere bai noski, hezkuntzak gizartean: pentsa dezagun adibidez nola aldatu den aniztasun funtzionala edo urritasunen bat dutenak ulertzeko modua). Hezkuntza ongi ulertu nahi duenak harreman hori aztertu eta ulertu beharko du beraz.

Hezkuntza fenomeno soziala da, Emile Durkheim-ek, «ekintza sozialak» definitzeko proposatu zituen ezaugarri guztiak betetzen dituelako (Durkheim, 1895): gu jaio aurretik hezkuntza-sistema existitzen zen, eta gu hil ondoren ere hor jarraituko du; eta ezin da indibidualki aldatu (nik bakarrik ezin ditut Gradu hauek martxan jarri edo aldatu); eta pertsonak eraikitzen dute, baina eraiki ondoren «instituzionalizatu» edo «gogortu» egiten da; eta bortxa boterea dauka inposatzeko (titulua beharrezkoa bihurtzen da arlo hauetan lan egiteko, zer-nola ikasi-irakatsi-ebalatu ere inposatu egiten da, etab.), nahiz eta normalean inposaketa hortaz soilik konturatzen garen arauen aurka joaten garenean.

Cuando yo cumplo mi deber de hermano, de esposo o de ciudadano, cuando ejecuto las obligaciones a que me he comprometido, cumplo deberes definidos, con independencia de mí mismo y de mis actos, en el derecho y en las costumbres. Aún en los casos en que están acordes con mis sentimientos propios, y sienta interiormente su realidad, ésta no deja de ser objetiva, pues no soy yo quien los ha inventado, sino que los he recibido por la educación. De la misma manera, al nacer el creyente ha encontrado completamente formadas sus creencias y prácticas; si existían antes que él, es que tienen vida independiente. El sistema de signos de que me sirvo para expresar mi pensamiento, el sistema de monedas que uso para pagar mis deudas, los instrumentos de crédito que utilizo en mis relaciones comerciales, las prácticas seguidas de mi profesión, etc., funcionan con independencia del empleo que hago de ellos. He aquí, pues, *maneras de obrar, de pensar y de sentir*, que presentan la importante propiedad de existir con independencia de las conciencias individuales. Y estos tipos de conducta o de pensar no sólo son exteriores al Individuo, sino que están dotados de una fuerza imperativa y coercitiva, por la cual se le imponen, quieran o no. Sin duda, cuando me conformo con ellos de buen grado, como esta coacción no existe o pesa poco, es inútil; pero no por esto deja de constituir un carácter intrínseco de estos hechos y la prueba la tenemos en que se afirma, a partir del momento en que intentamos resistir... (Durkheim, 1895: 37).



Anoeta herrian pintada (2017ko ekaina). Egilea: Jose Inazio Imaz.

Bestetik, ezin da ahaztu hezkuntza-prozesuetan gertatzen den gauzarik garrantzitsuenetakoa gizarteratzea dela. Hau da, gizarte guztiek hezkuntza erabiltzen dutela behar duten pertsona mota «fabrikatzeko». Hezkuntzaren bidez gizarteak nola funtzionatzen duen ikasi eta barneratzen da (ohiturak, arauak, balioak, pentsatzeko, sentitzeko eta izateko moduak). Horregatik, ezin da hitz egin hezkuntzari buruz zerbait abstraktua eta unibertetsala balitz bezala, fenomeno sozial bat den heinean,

gizarte bakoitzak hezkuntza mota bat inposatzen baitu. Horrela, hezkuntza-prozesu batean sioux indiarrak «produzituko» dira, beste batean pertsona kontsumistak, beste batean abertzale euskaldunak, etab.

En Pensilvania, el año 1744, el Gobierno hizo saber a los indios que existía un colegio para la educación de la juventud india, y que si los jefes indios enviaban media docena de sus hijos a ese colegio, el gobierno se encargaría de que recibieran todo lo necesario y de que fueran instruidos en todo el aprendizaje de la gente blanca. El portavoz indígena respondió: «debéis saber que naciones diferentes tienen conceptos diferentes de las cosas (...). Hemos tenido buena experiencia de ello: varios de nuestros jóvenes se educaron formalmente en los colegios de las provincias norteamericanas; se les instruyó en todas vuestras ciencias, pero cuando volvieron a nosotros, eran malos corredores, ignoraban todos los medios de vivir en los bosques, eran incapaces de soportar ya fuera el frío o el hambre, desconocían el modo de construir una choza o cómo atrapar a un venado o cómo matar a un enemigo; hablaban nuestra lengua con imperfección, y no estaban preparados para ser cazadores ni guerreros ni consejeros; en definitiva, que no servían absolutamente para nada» (Benjamín Franklin, 1784: «Notas acerca de los salvajes de Norteamérica», Fernández Palomares-ek aipatua, Fernández Palomares, 2003: 205).

Soziologia baliagarria zaigu, beraz, hezkuntza hobeto ulertu ahal izateko. Izan ere, soziologiak erakusten digu hezkuntza azken batean fenomeno sozial bat dela, historian zehar eraiki eta berreraiki dena, gizarteko gainerako instituzioekin harremanetan, eta talde sozial ezberdinen interesen arabera. Horrela, hezkuntza oso lotuta agertzen zaigu boterearekin, ideologiarekin, ezberdintasunekin, ekonomia eta lanaren banaketa sozialarekin, aberastasunarekin eta abar. Soziologoentzat, ezin da ulertu beraz hezkuntza bere testuinguru sozialetik kanpo, eta horregatik, hezkuntza aldatu nahi badugu, ziurrenik gizarteko beste gauza asko ere aldatu beharko ditugu.

Hezkuntzaren ikuspegi indibidualista, biologizista, genetista edo idealistetatik aldentzen gara beraz begirada soziologikoarekin. Entziklopedietan hezkuntza zer den begiratzen badugu adibidez, gehienak definizio indibidualista eta idealistak direla ikusiko dugu: «hezkuntza norberak barruan daramana ateratzea da», «hezkuntza ezkutuko dohainak bilatu eta garatzea da», «hezkuntza gaitasun fisiko, intelektual eta moralak garatzea da»... Definizio soziologikoa, ordea, ezberdina da: «hezkuntza belaunaldi berrien gizarteratzea edo sozializazioa da, hau da, belaunaldi berriei gizartean bizitzeko beharrezkoa dena erakustez arduratzen den instituzio soziala da hezkuntza». Ez da harria nolanahi jotzen ea zer ateratzen den, baizik eta modu zehatz batean lantzen da gizarteak nahi duen eskultura lortu ahal izateko. Modu honetan, beste ikuspegi batzuek hezkuntza «naturatik» edo «biologiatik» esplikatzeko duten bitartean, soziologiak gizartetik esplikatu du. Hezkuntza zirkunstantzia sozialen eta giza erabakien ondorio dela ulertzen dugu horrela, eta ondorioz alda daitekeela. Ikasleak ere ingurune sozial baten produktu bezala ulertzen dira, eta ez soilik euren gene biologikoen produktu bezala. «Ezagutza» bera ere aukeraketa sozial baten ondorio dela ulertzen da, ez neutral eta ez unibertsal, eta ondorioz zalantzan jarri eta alda daitekeela. Arrakasta-porrot eskolarrak, eta horrekin harremanetan ebaluazio-

irizpideek, ezberdintasun sozialarekin harreman handia dutela ikusten da, gizarte-egitura legitimatu eta berreginez, talde sozial dominatzaileei egiten baitiete mesede irizpide horiek.

Orokorrean esan genezakeena da, hezkuntzaren arloko profesionalek beren inguru soziala eta inguru horren eta hezkuntzaren arteko harremana ezagutu behar dutela, eta Hezkuntzaren Soziologiak ezagutza horretan laguntzen duela.

Hezkuntza fenomeno soziala dela esanez hasten dugu irakasgaia beraz, baina zer esan nahi du «sozial» adjektibo horrek? Kolektiboarekin eta gizartearekin zerikusia duen oro da soziala, maila indibiduala gainditzen duen oro (Giddens, 2010; Macionis eta Plummer, 2008).

Zerbait «soziala» dela esaten dugunean adierazten ari garena da, gizartea dagoela atzean, oinarrian. Gizartea, pertsona talde bat da, hasi maila mikroenetatik (bi pertsonaren arteko harremana) eta makroetaraino (zibilizazioa, globalizazioa). Oso garrantzitsua da baita ere talde horrek eraikitzen duen guztia, hau da, talde horren kultura. Kulturaren barnean egongo dira bai elementu materialak (etxeak, jantziak, janariak...) eta ez-materialak (balioak, ohiturak, arauak, bizitzeko moduak edo estiloak, pentsatzeko, izateko eta sentitzeko moduak).

Soziologoentzat (gizartea aztertzen duten zientzialariak), gizartearen ezaugarri garrantzitsuenetako bat da errealitate soziala, gizartea, errealitate eraikia dela. Horregatik, natur zientziak eta gizarte-zientziak bereizi behar dira, bakoitzak aztertzen duen objektua (natura/gizartea) ezberdina baita. Gizartea gizakiek eraiki eta mantendu/aldatzen dugu, errealitate kulturala da.

Eta oso garrantzitsua da baita ere ulertzea gizarteak gizakiarengan duen eragina (Berger, 1988). Taldeak gure izateko, pentsatzeko eta sentitzeko moduan duen eragina. Gure kasuan, gizarteak hezkuntza-munduan duen eragina aztertzea izango litzateke helburua, hezkuntzaren izaera sozialaren kontzientzia izatea (jakinik hezkuntzak ere eragina daukala gizartean).

Soziologoentzat, gizarteak modu erabakigarri batean eragiten du gizakiarengan. Gainerako animaliak beren instintuek gidatuta bizi diren bitartean, gizakiok gizarteak esaten diguna egiten dugu. Hori dela-eta, beste edozein animalia-arrazatan indibiduo guztiek jarrera berdina duten bitartean, gizakietan ezberdintasun ugari existitzen dira.

Soziologiak ez du instintuen garrantzia ezeztatzen, baina soziologo batentzat pertsona bat bere eremu sozialaren emaitza da batez ere, inguratzen duten faktore sozialen emaitza, bere kulturaren emaitza. Eta gainera, taldearen eragin hau kolektibo guztietan mantentzen da, baita arau sozialetatik ihes egin nahi dutenen artean ere (talde horietan beste arau batzuk inposatzen dira, baina edozein gizarte-taldek eragiten du bere taldekideen jantzeko eran, pentsaeran, bizieran..., eta arau eta limite batzuk jartzeko joera izaten du).

Hona hemen ideia hori hobeto ulertzeko zenbait adibide:

- Suizidioa: Durkheimen XIX. mendearen amaierako lan klasikoaren ondoren, badakigu guztiz «indibiduala» eta «pribatua» dirudien fenomeno honetan eragin handia dutela zenbait faktore sozialek, hala nola erlijioak, generoak edota klase sozialak.
- Kanibalismoa: XXI. mendeko Euskal Herrian erabat «debekatua, ez-normala eta antinaturala» iruditzen zaigu, baina gizarte askotan praktikatu izan da. Beraz, gaur egun praktikatzen ez badugu, ez da «naturala» edo «normala» ez delako. Gure garaiko etika eta moral dominatzaileek debekatzen dute kanibalismoa praktikatzea, eta nabaria den moduan, etika eta morala, eraikiak eta sozialak dira, garaiaren eta gizartearen arabera aldatzen direnak. Ildo honetan antzeko beste adibide batzuei buruz ere hausnar genezake: indarkeria, bortxaketa, monogamia, fideltasuna... horietan guztietan eragin handia baitu ingurune sozialak.
- Nazismoa: 1930eko hamarkadako Alemanian bizi bagina, gu ere naziak izango ginatke? Ikusi *La Ola* filma (2008) eta erreparatu Zygmunt Bauman-en *Modernidad y Holocausto* liburuari (1989).
- «Nazka», «pena» edo «beldurra» eta antzeko sentimenduak: automatikoak eta berezkoak dira? Zizareak jateak nazka emango al liguke zer jaten ari garen jakingo ez bagenu? Zergatik iruditzen zaigu normala zenbait animalia jatea (behia, oilaskoa, untxia, txerria) eta arraroa beste batzuen kasuan (txakurrak, katuak...)?

Pena sentimenduaren kasuan, ez da berdina izaten ume asko izan eta galtzen dituzten kulturetako dolua, eta beste kultura batzuetakoa.

Beldurraren kasuan ere, psikologia konduktistak frogatu zuen XX. mendearen hasieran «Albert txikiaren esperimntua» bezalakoekin erakutsi eta ikasi egiten dela.

Eta «gustuak», gureak dira (Bourdieu, 1979)? Eta «bokazioak»?

- Osasuna eta gaixotasuna: gizarte batzuetan gaixotasun batzuen tasak (depresioa, estresa, bihotzekoak, minbizia) beste gizarte batzuetan baino askoz altuagoak badira, ez ote da izango faktore sozialek pertsonen osasunean eragin handia dutelako? (elikadura, bizitza-erritmoa, produktu eta teknologia batzuekin kontaktua, alienazioa, anomia edo zentzu falta...). Jaurlaritzaren datuen arabera, baldintza sozioekonomikoek eragin zuzenda dute bizi-itxaropenean, eta ondorioz, hamar urte baino gehiagoko aldeak daude eskualdeka: adibidez, Gasteiz Hegoaldeko eremuan 82 urteko bizi-itxaropena dute gizonezkoek eta Bilbo Zaharrean 71,5 urtekoa. Emakumezkoetan, Gasteizko Santa Luzia eremuan 88 urtekoa da bizi-itxaropena, eta Bilbo Zaharrean 81 urtekoa (Osasunaren Gizarte Baldintzatzaile eta Aldaketa Demografikoari Buruzko Ikerketa Taldea,

www.ehu.eus/eu/web/opik). Adibideekin jarraituz, Euskadiko eremu behartsuenetan biriketako minbiziarekin hiltzeko arriskua gizonezkoentzat % 37 altuagoa da eremu aberatsenekin konparatuta, tumoreen kasuan % 21 altuagoa, zirrosia edukitzeko arriskua % 65 altuagoa eta bere buruaz beste egiteko arriskua % 53 altuagoa. Emakumeen kasuan, diabetesaren ondorioz hiltzeko arriskua % 50 altuagoa da, eta % 50 altuagoa baita ere estomagoko minbiziaren ondorioz hiltzeko arriskua. Eremu behartsuenak identifikatuta daude: Gipuzkoan Pasaia, Errenteria, Soraluze, Hernani eta Andoingo gune batzuk; Bizkaian Ezkerraldea eta Bilbo Hegoaldeko eremu batzuk (Basurto, Rekalde, Ibaiondo, Begoña) eta Araban Agurain eta Gasteizko auzo batzuk (Pilar, Zaramaga, Ali-Gobeo, Abetxuko, Alde Zaharra eta Adurtza). Euskadiko Autonomia Erkidegoko (EAE) biztanleriaren % 18,4 bizi da bertan. Eremu aberatsenak, berriz, Gipuzkoan Donostia erdialdea, eta Zarautz, Irun, Hondarribi eta Zumaiako eremu batzuk; Bizkaian Bilbo erdialdea, Eskuinaldea eta Plentzia-Mungia ingurua; eta Araban Gasteiz Hegoaldea eta Erdialdea. Orokorrean esan liteke eremu behartsuetan hilkortasun-arriskua % 20 altuagoa dela, edo Euskadin egunean bi pertsona hiltzen direla haien baldintza sozioekonomikoen ondorioz (Montoya, 2016). Ijito etniarena izan liteke beste adibide bat: Euskadiko gainerako biztanleria baino 10-20 urte gutxiago bizi dira ijitoak. Izan ere, bizitza sedentarioagoa egiten dute, koipea, gatza edo azukrea duten freskagarri gehiago kontsumitzen dituzte eta gutxiago parte hartzen dute minbizia detektatzeko programetan. Ondorioz, diabetesa, kolesterola, hipertentsioa, obesitatea edo bihotzeko arazo gehiago dituzte.

- Gorputza: gorputzak gureak dira edo gizartearenak? Pentsa dezagun gorputz maskulino eta femeninoak nola eraikitzen diren, edertasun-kanonak, anorexia bezalako fenomenoak, abortuari buruzko eztabaidak, etab. (abortuaren kasuan adibidez, ikasketa urridun emakumeek eta etorkinek abortuen tasa handiagoa dute).

Gure bizitzan eragina duten agente edo faktore sozial nagusietakoak honakoak lirateke: familia, generoa, maila ekonomikoa (klase soziala), garai historikoa, adina, bizilekua (herria edo hiria, auzo mota...), talde etnikoa, ideologiak-erlijioa-sinismenak, harreman sozialak (lagun taldea eta bestelakoak), komunikabideak eta pantailak, estatua eta kapitalismoa bezalako makroegiturak...

Faktore sozial hauek gure bizitzan duten eragina aztertzerakoan, hona hemen aurreko urteetako ikasleek emaniko adibide batzuk:

«Generoak eragina dauka nire bizitzan, neska izateagatik parrandatik bueltan bakarrik banao etxera *beldurra* pasa beharra daukadalako. Adibidez, Donostiako Egia auzokoa izanda trenbide azpiko tunela gurutzatzean. Ez dut uste egoera berdina denik mutilentzat».

«Klase sozialak eragina izan du nire bizitzan, kotxeko karneta ordaintzeko nire aitarekin lan egin behar izan nuelako. Hor ikasi nuen zenbat kostatzen den dirua irabaztea».

«Klase sozialak eragina izan du nire bizitzan, Ermuko nire lagun baten etxean Caritas-eko gaitak atera zizkidatelako, eta, aldiz, Bigarren Hezkuntza Durangon ikasi nuenean beste maila ekonomiko bat ikusi nuelako nire inguruan».

«Klase sozialak eragina du gure bizitzan, behartsu itxura duen pertsona batek dirua edo dei bat egiteko mugikorra uztea eskatzen badu, jendeak desconfiantzaz begiratuko diolako, baina, aldiz, pertsona bera “ondo jantzita” baldin badoa, jendearen jarrera bestelakoa izango da».

«Nire auzoak (Trintxerpe) eragina dauka nire bizitzan, nire adineko gazte askorengan joera delako eskolan emaitza txarrak ateratzea, bizitza porro eta parranden inguruan antolatzea, motoan ibiltzea (gurasoek erositakoa), moderno itxura izateko piercing eta tatuajeak edukitzea, gure inguruan dauden arazo sozialez ez arduratzea...».

Gizarteak gizakiarengan eragiteko prozesu honetan, hezkuntzaren lana funtsezkoa da, hezkuntzaren bidez «sartzen» baitzaizkio gizabanakoari gizarteko ohiturak, arauak eta balioak. Pertsonak beren kultura hezkuntzaren bidez «jaten» dute.

Ikuspegi soziologiko batetik, gure bizitzan oso garrantzitsuak diren «maitasuna» eta «nazioa» bezalako kontzeptuak, sozialki eraikitako artefaktuak dira. Baina horrek ez du esan nahi fenomeno «naturalek» baino balio gutxiago dutenik, edo existitzen ez direnik. Kasu batzuetan gerta daitekeena da, arriskutsuak bihurtzen direla pertsona edo talde batzuentzat. Adibidez, feminismoak «maitasun erromantikoa»ren ideologia kritikatu izan du emakumeei kalte egiten dielako. Lehenengo gai honetan argi utzi nahi duguna da, hezkuntza-arloko profesionalek garbi eduki behar dutela fenomeno sozialak (tartean hezkuntza) eraikiak, kulturalak eta ikasiak direla. Eta ondorioz, zalantzan jarri eta alda daitezkeela.

Dena den, nahiz eta gizartearen eragina oso handia izan, horrek ez du esan nahi gure familiak, eskolak, kuadrillak, auzoak eta abarrek guztiz baldintzatu eta determinatzen dutenik gure bizitza. Hau da, egitura sozialen aurrean, badago tarte bat erresistentziarako eta askatasunerako. Jasaten dugun «presio soziala»ri buruz hausnar genezake, eta neurri batean behintzat aurre egin geniezaioke. Horixe litzateke irakasgai honen helburua: gizartetik distantzia hartzen ikastea, fenomeno sozialak (gure kasuan batez ere hezkuntza) zientifikoki aztertzen eta zalantzan jartzen ikastea.

Gizarteak edo taldeak egiten duen «presio sozial» hau zein indartsua den ulertzeko interesgarriak dira psikologia sozialetik egindako esperimenduak. Solomon Asch-ek, adibidez, ikertu zuen zein inportantea den «konformidadea», jendeak bere inguruko taldeetan sartu nahi baitu, baita horretarako ordu arte

pentsatzen zutena zalantzan jarri behar badute ere (hau sakontzeko kontsultatu «Asch-en esperimntua»ri buruzko informazioa). Zentzu horretan, interesgarriak dira baita ere Garfinkel-en «haustura-esperimntuak»: arauak zalantzan jarriaz arau horiek eguneroko bizitzan zuten garrantzia erakusten zen, ordu arte ezkutuan edo modu inplizituan geratzen baitziren (adibidez, pertsonen arteko espazio edo tarte «normalak» haustea). Ideia hauetatik abiatuta, Stanley Milgram-ek frogatu zuen nola gizarteak (taldeak) obediencia exigitzen duen, eta nola txikitatik obeditzeko heziak garen, eta nola gehienok arauak obeditzen ditugun, baita gure printzipioen aurka doazenean ere. Beraz, gure jarrera ez du esplikatzen hainbeste zer persona mota garen horrek, baizik eta bizi dugun testuinguruak eta egoerak. Kontuz beraz «zintzo/gaizto» sailkapenekin: persona «normalek» ere egin ditzakete delituak edo «gaiztakeriak» testuinguruaren arabera. Honekin lotuta aurrerago aipatuko dugu Philip Zimbardoren «Stanford-eko Kartzelaren Esperimntua»: zer gertatzen da persona on bat leku perbertso batean sartzen denean? Persona normalak gizarteak eman dizkien funtzio sozialak betetzen hasten dira, boterea dutenek boterea erabiliko dutelarik (abusatu ere bai), eta mendeko egoeran daudenek autoritatea onartuko dutelarik. Beraz, egoera sozialak dira jarrera perbertsoen kausa. Gauza bera esplikatu zuen Hannah Arend filosofoak *Einmann Jerusalem-en* liburuan (1963): naziak eta nazien buruzagiak, Eichmann bezalakoak, persona «normalak» ziren, gorago zeudenen aginduak betetzera mugatzen zirenak.

Eztabaida garrantzitsua da hau: zer neurritan baldintzatzen dute gure gizarteko erakundeek, estruktura sozialek (estatua, familia, eskola...)? Zenbaterainoko gaitasuna daukagu gizartearen aurrean erresistentzia praktikatzeko, askeak izateko? «Estrukturalismoa versus erresistentzia» dei geniezaioke eztabaida honi.

Estrukturalismoak esaten duena da estruktura sozialak oso inportanteak direla pertsonen bizitzan. Luis Althusser filosofoak, adibidez, honela esplikatzen zuen: «Gizakien kontzientzia eta borondatek kanpo, egitura edo estruktura sozial objektiboak daude, gizakien bizitzan funtsezko eragina dutenak». Emile Durkheim soziologoak, berriz, honakoa zioen: «Somos víctimas de una ilusión que nos hace creer que hemos elaborado por nosotros mismos lo que se nos impone desde fuera».

Beste batzuek, eragin hau onartu arren, erresistentzia eta askatasunerako aukera ikusten dute. Horren adibideak izan daitezke Francoren diktaduran ikastolak sortzea, intsumisio-mugimendua, ez depilatzaera ausartzen den neska...

Baina egia da, orobat, ezin garela erori «nik nahi dudana egin dezaket» dioen idealismo inozenteegi edo *naif* batean. Kontuz ibili behar dugu, beraz, autolaguntzak edo publizitateak saltzen diguten mezu horrekin (*impossible is nothing, just do it*, etab.). Denok ez dugu karta berdinekin jolasten bizitzaren jokoa. Modernitatearen edo gure garaiaren ideia edo oinarri inportantea da hau («zure identitatea zuk eraikitzen duzu», «zure bizitza zuk nahi duzuna izango da»), baina soziologiak gogorarazten digu gizartea ere oso garrantzitsua dela gure bizitzan. Hizkuntzaren kasuan erraza da

ulertzeko hau euskaldunontzat, euskaraz bizitzeko «aukera pertsonala» badaukagula esaten digutenean euskaraz ez dakitenek edo hitz egiten ez dutenek. Testuinguaren ondorioz, oso zaila da «aukera pertsonala» gauzatu ahal izatea. Beraz, erresistentzia indibiduala praktika genezake puntu bateraino, baina onartu behar dugu baita ere animalia sozialak garela, oso zaila dela taldearen eraginetik ihes egitea, eta agian hobe dela erresistentzia eta eraldaketa ere kolektiboki antolatu eta praktikatzea, egitura eta arauak aldatzen saiatuaz. Soziologiak «aukera pertsonala»ren ideologia zalantzan jarriko luke beraz. Zizek filosofoak dioen moduan, gauzak aldatzeko agian ideologia liberal-kapitalistak saldu digun indibiduo originalaren ilusioa utzi eta onartu beharko genuke talde baten parte garela.

Zentzu horretan, C. Wright Mills soziologoak bere *Imaginazio Soziologikoa* liburu ezagunean esaten zuen soziologiaren helburu nagusia dela erakustea nola gertaera eta arazo indibidualak askotan kolektiboak edo publikoak diren, nola dauden harremanetan bizitza indibidualak eta historia. Hau da, jendearen bizitza ulertzeko beharrezkoa da bizitza horiek testuinguru sozialean kokatzea, horrela errazagoa izango baita konponbideak bilatzea. Hezitzaile bezala lan egiteko, beharrezkoa da, beraz, begirada soziologiko hau gure lanean aplikatzea.

El fascismo postmoderno nos construye como sujetos autónomos, es decir, como sujetos que se adhieren libremente a sus creencias, que viven estilos de vida que escogen, y que además creen (creemos) disponer de nuestra propia vida (...). En última instancia, en esta sociedad el enfoque terapéutico hace de mí el único responsable de lo que me pasa (...). Yo soy el responsable de mis fracasos porque no sé gestionar mi vida (...). Encarar la politización del malestar implicaría la necesidad de introducir un giro desde lo personal a lo colectivo (...). Tengo que dejar atrás mi malestar para acceder al malestar social (Lopez Petit, 2015: 14).

Eztabaida honetan, kontuan eduki behar da gizartearen eta gizakiaren arteko harremana anibalentea edo aurpegi bikoitzekoa dela: batetik, gizarteak edo kulturak gizakiari lagundu egiten dio, hezkuntzari esker talde horrek aurretik ikasi duen guztia jasotzen duelako belaunaldi berriak, hau da, ez daukagulako beti zerotik hasi beharrik. Modu horretan gizakion gaitasunak garatzen laguntzen digu taldeak. Salisbury-ko Juan-en aipu ezagunak (1159) dioen moduan: «Erraldioen sorbalden gainean jarritako ipotxak bezalakoak gara, eta horri esker gehiago eta urrutirago ikus genezake». Baina beste zentzu askotan, gure gizarteak eta kulturak, ohiturek, arauak, legeak eta balioek, gure gaitasunak mugatzen eta lotzen dituzte. Max Weber-ek zioen moduan, pertsonok gure «burdinazko kaiolak» eraikitzen ditugu.

Baina orokorrean, joera daukagu hau guztia ahazteko (gure errealitatea eraikia dela eta eragin handia daukala gure bizitzan), eta fenomeno sozial-eraikiak direnak, normal-natural buhurtzen ditugu, eta ez ditugu zalantzan jartzen. «Kulturala eta ikasia» dena, «naturalizatu» eta «normalizatu» egiten dugu. «Gizartearen eraikuntza soziala» deitzen zaio joera horri: behin eraiki ondoren, fenomeno sozialak «gogortu» egiten dira, ohitura bihurtzen dira, instituzionalizatu (Berger eta Luckman, 1967).

Modu horretan, inguratzen gaituen errealitatea «horrelakoa dela eta ezin dela aldatu» pentsatzen dugu. Ahaztu egiten zaigu gure bizitza baldintzatzen duten arau eta ohiturak, beste pertsona batzuek ezarritakoak direla, eta bizirik jarraitzen dutela praktikatzen jarraitzen dugulako (eta ondorioz alda daitezkeela). «Kulturalak» diren bizimodu eta balioak «normal» eta «natural» bihurtzen ditugu. «Gurea» (gure gizarteak irakatsi diguna) iruditzen zaigu normalena, eta gainerakoa «arraro» bezala definitzen dugu.



Billabonako herrian pintada (2017ko martxoa). Egilea: Jose Inazio Imaz.

Beraz, ikuspegi soziologikoa batetik, «normalitatea» gehiengoak praktikatzen duen bizitza-estiloa da, askotan boterea dutenek inposatua. Beraz, kontuz ibili behar dugu pentsatzearekin «normala» (norma edo arauari jarraitzea) ona dela, eta normaletik desbideratzen dena txarra. Gure gizartean adibidez, normalitatea izan liteke: «eskolara joan eta titulua atera-enplegu bat lortu-kotxe bat erosi-bikotea bilatu-etxea-bi ume». Nobix edo bikotea edukitzea adibidez ia derrigorrezko bihurtzen da adin batetik aurrera «normala» izateko, eta gehiengoak ez du planteatzen bestelako bizitza edo elkarbizitza modurik («bi izan behar dugu etxe bat erosteko, bi ume bat hezteko, bi zoriontsu izateko, bi baita zozketetako bidaitera joateko ere!» idazten zuen aurreko ikasturte bateko ikasle batek).

Hezkuntzako profesionalok erreflexiboki eta kritikoki begiratu behar diogu, ordea, errealitate sozialari, eta normalitatea zalantzan jarri behar dugu. Testuinguru sozial zehatz batean lan egingo dugu, eta gure lana ondo egiteko, testuinguru edo gizarte hori zientifikoki aztertzen jakin behar dugu, hezkuntza-arloan ere eragin handia baitu. Horretarako tresnak emango dizkizue Hezkuntzaren Soziologiak.